


Euskal Administrazioen sarrera arruntak %12,1 eta gastua %8,6 hazi ziren 2006an

Finantza-zor bizia 2005eko BPGren %6,3tik 2006ko %5,4ra jaitsi zen

2006ko ekitaldian, Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal Administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko erakundeekin batera) gastu arruntak %8,6 hazi ziren, Eustatek emandako datuen arabera. Gastu arrunta 11.066,9 milioi euro izan zen; sarrera arruntak 14.267,6 milioi izan ziren, urteko hazkunde tasa, 2005aren aldean, %12,1 izan zelarik.

Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2006 urtea.



(zerga-sarreraren gaineko %)

Iturria: Eustat

Zerga sarrerek –sarrera arrunt guztien %90 baino gehiago- %11,6ko aldakuntza positiboa izan zuten. Haien artean Sozietateen Zergatik eratorritakoek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena, %16,8. BEZak %11,9ko hazkundea izan zuen eta PFEZak %11,1ekoa. Udal zergen hazkundea antzekoa izan zen, %11,7, eta Zerga bereziarena txikiagoa, %4,7.

Gastu arruntaren atalen artean hazkunderik txikiena Pertsonal gastuetan izan zen, %5,7; ondoren, Transferentzia Arruntetan, %9,6, eta bestelako gastu arruntetan (funtzionamendu gastuak), %9,7. Oro har, gastu arruntaren hazkundea %8,6koa izan zen; kontuan hartuz sarrera arruntaren hazkundea handiagoa izan zela (%12,1), azkenean 2006an eragiketa arruntaren saldoan %26,0ko hazkundea dugu.

Eragiketa arrunten saldotik aurrekontu saldo ez finantzaria pasatzeko, kapital eragiketen sarrera eta gastuak kontabilizatu behar dira. 2006ko kapital-sarrerak 2005ekoak baino %12,3 txikiagoak izan ziren, eta kapital-gastuak (inbertsio errealak gehi kapital-transferentziak) %11,0 hazi ziren. Ondorioz, aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 1.333,6 milioi euro izan zen, 2005ean baino 396,4 gehiago.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2006-2005

mila euro	2.005	2.006	Δ %
SARRERAK GUZTIRA	13.615.119	14.878.975	9,3 %
Eragiketa Arruntak	12.726.379	14.267.565	12,1 %
-Zerga Sarrerak	11.734.499	13.092.456	11,6 %
PFEZ	3.443.850	3.825.153	11,1 %
Sozietate-zerga	1.449.546	1.693.124	16,8 %
BEZ	4.196.628	4.696.740	11,9 %
Zerga Bereziak	1.402.078	1.468.286	4,7 %
Udal-zergak	551.904	616.355	11,7 %
Bestelako Zergak	690.493	792.798	14,8 %
-Bestelako sarrera arruntak	991.880	1.175.109	18,5 %
Kapital-eragiketak	380.252	333.562	-12,3 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	13.106.631	14.601.127	11,4 %
Finantza-eragiketak	508.488	277.848	-45,4 %
GASTUAK GUZTIRA	12.809.913	14.022.084	9,5 %
Eragiketa Arruntak	10.186.569	11.066.952	8,6 %
Langileria Gastuak	2.664.596	2.817.550	5,7 %
Transferentzia Arruntak	3.901.873	4.277.725	9,6 %
Bestelako Gastu Arruntak	3.620.100	3.971.677	9,7 %
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.982.934	2.200.610	11,0 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	12.169.503	13.267.563	9,0 %
Finantza-eragiketak	640.410	754.521	17,8 %
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.539.810	3.200.613	26,0 %
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	937.128	1.333.564	42,3 %

Iturria: Eustat

2006an Euskal Administrazioen zor bizia 3.354,3 milioi euro izan zen, 2005ean baino %6,7 gutxiago. Azken urtean amortizatu beharreko zorretik 442,0 amortizatu ziren, baina 199,2ko zor berriak egin ziren; azken zorra 0,2 milioi eurotan murriztu da.

Euskal Administrazioen finantza-zor hau BPGren %5,4 izan zen, ia puntu bat gutxiago 2005ean baino, non %6,3 izan baitzen.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2006. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	14.267.565	8.200.928	2.340.570	7.439.602	4.570.011
GASTU ARRUNTAK	11.066.952	6.554.048	2.140.416	6.587.583	4.068.452
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	3.200.613	1.646.880	200.155	852.019	501.559
KAPITAL SARRERAK	333.562	49.972	118.285	190.079	161.174
KAPITAL GASTUAK	2.200.610	915.501	194.322	674.831	601.904
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	1.333.564	781.350	124.118	367.267	60.829
ZOR BIZIA					
(Amortizatzeke 06-12-31)	3.354.323	1.850.285	132.041	1.031.973	340.024

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tlf: +34-945-01 75 99 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es